

2018ko gizarte-txostena

Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAIALA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte

Hamargarren urtez, **Gizateako** bazkide diren enpresen Gizarte-Txostena aurkezten dugu, 2018an izan zuten jarduerari buruzko datu pilatuak emanez. Bertan, 2018an bazkide ziren enpresa guztien informazioa biltzen da, 42 bazkideetatik 40 hain zuzen ere*, Euskal Autonomia Erkidegoan 43 enpresa erregistraturik egon arren. Txostenean, enpresei buruz eskainitako informazioa, enpresa-jarduerari eta jarduera ekonomikoari dagokio, baina baita euren xede sozialari ere: lan merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten eta bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsona langabeei emandako laguntza eta gizarteratze eta laneratzea, alegia.

* 2 enpresek kalifikazioa galdu zuten 2018ko azken hiruhilekoan eta 2019ko lehenengo hiruhilekoan. Hori dela eta, haien datuak ez dira jasotzen txosten honetan.

2018ko gizarte-txostena



Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

Laguntzailea



ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



Asociación de Empresas
de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko
Euskadiko Enpresen Elkarte

2018ko Gizarte-Txostena
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Enpresak Euskadin

2019ko uztaila

Gizatea

Asociación de Empresas de Inserción del País Vasco
Gizarteratzeko eta Laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea

Venezuela plaza 1, 2. solairua, Ezk.-Ezk. • 48001 Bilbo

Tel.: 94 401 09 59

gizatea@gizatea.net

www.gizatea.net

Twitter: @Gizatea

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimaketa: Amayadigital. S.L.U.

Koordinazioa, analisia eta idazketa: Leire Álvarez de Eulate eta Joana Revilla.



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiaitzeko, banatzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu.

Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.eu>

Aurkibidea



AURKEZPENA



NORTZUK GARA



INFORMAZIO SOZIALA



INFORMAZIO EKONOMIKOA



ITZULKIN EKONOMIKOA



LANERATZEKO ENPRESAK ETA GJHAK



LANERATZEKO ENPRESEN ZERRENDA

[Aurkezpena]

Jarraian, **Gizatearekin** elkartutako laneratzeko enpresen Gizarte Txostena aurkeztuko dizugu, gizarteari eta erakunde publikoei nahiz pribatuei laneratzeko enpresek egiten duten lan bikoitza (enpresakoa eta soziala) komunikatzeko xedearekin.

Gizarte Txostena erakunde bakoitzaren balantze sozialean oinarritzen da, eta hemen 2018ko ekitaldiaren emaitza aipagarrienak aurkeztuko dira.

2017an baino bi enpresa gutxiago daude¹ (40; lehen, 42 zeuden), baina, aurten ere, sendotu egin da aurreko bi ekitaldien bilakaera positiboa enpresen adierazle ekonomiko eta sozial nagusietan, eta jarraian horietako batzuk laburbilduko ditugu:

- Laneratzeko lanpostuen hazkundea 2018an indartu zen, **2017aren aldean % 8,6ko hazkundea izaki, % 13,5ko hazkundea 2016aren aldean**, eta % 21ko hazkundea 2015aren aldean.
- **Sektoreak sortutako enpleguak** ere gora egin dute 2018an, batez ere bazterketa-egoera edo -arriskuan dauden pertsona: elkartutako laneratzeko enpresek 2018an **1.204 pertsona** enplegatu zituzten, eta horietatik **777 laneratzeko prozesuan**, horrela, 2018a izan da laneratzeko prozesuan dauden pertsona gehien enplegatu diren urtea.
- 2018an, laneratzeko Euskadiko enpresetan ibilbidea amaitu duten pertsonak **ohiko enplegura sartzeko tasa** egonkorra izan zen: ibilbidea amaitu **zuten laneratzeko enplegatuen % 66 ohiko lan-merkatuan sartu da**.
- Beraz, laneratzeko enpresak sendotu dira, **bazterketa-egoera edo -arriskuan dauden pertsonen kasuan lana aktibatzen tresna eragingarri** modura. Urte honetan, behin ere, nabarmendu beharra dago, Euskadiko laneratzeko

¹ 2018an, laneratzeko 43 enpresa zeuden erregistratuta Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, horietatik, 42 **Gizateari** zeuden lotuta. Enpresa horietatik bik galdu zuten laneratzeko enpresaren kalifikazioa, eta, horrenbestez, memoria sozial honetan, 40 enpresaren datuak jaso dira.

enpresek ikusi ahal izan dutela Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren jasotzaileak handitzen direla, zuzentzen diren kolektiboen artean. 2018. urtean, laneratze prozesuan egondako langileen % 77k DSBE jasotzen zuten. **Gizateatik**, azpimarratu nahi genuke, behin ere, laneratze enpresek betetzen duten **prebentziozko funtzioa, hobetzen dituztelako bazterte- egoera edo -arriskuan dauden pertsonen enplegarritasuna eta lan-merkatura sartzeko aukerak, diru-laguntzak jaso zein ez.**

- **Salmentak dira Gizateari elkartutako laneratze enpresen diru-sarrera iturri nagusia:** 2018ko datuen arabera, diru-sarrerak, guztira, 31.330.382,88 € izan dira, eta, horien % 71 produktu eta salmenten fakturaziotik etorrira. Azpimarratu nahi genuke, salmenta guztien % **83 bezero pribatuak direla eta % 17 sektore publikoa.** Datuok erakusten dute, laneratze enpresak merkatu pribatuan aritzen direla batez ere, eta administrazio publikoak kontratatutakoek murrizak izaten jarraitzen dutela, nahiz eta 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoak 2018an indarrean sartu, non lege horren 4. Xedapen Gehigarriak betebehar-indarra ezartzen diela herri administrazioei, laneratze enpresei gordetzeko zenbait lizitazioen parte-hartzeko ehuneko bat. Zenbait administrazio publiko aurrerapausoak ematen hasi dira legediko agindu hori aplikatzearen esparruan, baina modu oso arinean oraindik. **Gizateak** uste du garaia dela administrazioek hori guztia ausardiaz egiteko, eta, hala, sektorearen eta laneratze postuen hazkundearen alde egiteko, betiere, kostu gehigarririk gabe eta politiken koherentziaren eta diru publikoa optimizatzearen alde eginez.

Diru-laguntzei dagokienez, diru-sarrera guztien % 24 dira, eta horien % 81 laneratze enpresentzako laguntza espezifikoak dira.

Erakutsi bezala, datuek adierazle ekonomiko eta sozial aipagarrietan joera positiboa izan arren, **Gizateako** enpresek harago egiteko asmoa dute, eta euren enpresetan laneratze prozesuan lan egingo duten pertsona gehiago izan nahi dituzte, eta, halaber, kalitatezko laneratzerako ildoak sortu, bai kalitatea zein ohiko enpleguetara pasatzeko prozesuaren kalitatea hobetu.

Horretarako, 2018. urtean, **Gizateak** jarraitu du zenbait eragilerekin hainbat aliantza estrategiko ezartzen. Erakunde publikoez, sareez eta unibertsitatez gain, sektore pribatura hurbiltzeko lanean hasi gara aurten, laneratzeko enpresek egiten duten lana ezagutarazteko, lankidetzaharremanak ezartzeko –betiere, gure enpresetan ibilbidea amaitu duten pertsonak ohiko enplegura sartzeko–, eta haren baitan pertsona guztiak sartzten dituen gizarte batean kalitatezko enplegua sustatzeko jarraitzeko xedez.

Laburbilduz, Euskadi Basque Country 2030 agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzean benetako eragina duten eragile anitzen aliantzak ezartzearen alde egiteko xedez.

Gurekin bat egitera gonbidatzen zaitugu.

Nortzuk gara

Gizateaz eta gizarteratze-arloan dituen enpresez ari garenean, honetaz ari gara:

Parte-hartzea	2018
Gizateako bazkide diren enpresak.	42 ²
Gizarte-txostenean parte hartu duten enpresa kopurua.	40 (% 95)


Datu soziolaboralak	2018
Langile kopurua -laneratze eta gizarteratze prozesuan eta prozesutik at-.	1.204
Laneratze langileak.	777
Lansaiosko lanpostuak -laneratze prozesuan eta prozesutik at-.	714
Lansaiosko laneratze lanpostuak.	489
Ibilbidea amaitzean, lan-merkatuan sartzen diren pertsonen ehunekoa.	% 66

Datu ekonomikoak (€)	2018
Sarrerak, guztira.	31.330.382,88 €
Fakturazioa, guztira.	22.176.977,20 €
Ustiapen diru-sarreretatik, diru-laguntza publikoen ehunekoa.	% 24
Langileen kostuak.	17.054.893,79 €
Sortutako Balio Erantsi Gordina.	18.441.916,40 €


Administrazio publikoei itzulkin ekonomikoa (€)	2018
Herri administrazioei itzulitakoa, gizarte segurantza, BEZ, SZ, PFEZ eta bestelakoen bitartez.	3.848.624,44 €
Herri administrazioei itzulitakoa, gizarte segurantza, BEZ, SZ, PFEZ eta bestelakoen bitartez, laneratze lanpostu bakoitzeko.	7.873,30 €

² 2 enpresek kalifikazioa galdu zuten 2018ko azken hiruhilekoan eta 2019ko lehenengo hiruhilekoan. Hori dela eta, haien datuak ez dira jasotzen txosten honetan.


Banaketa geografikoa



Forma juridikoa



Esparru geografikoa




Informazio soziala

Gizarteratze-arloko enpresak ekimen sozioekonomikoak dira, enpresa-jarduera zehatz baten bidez gizarteratzeko bektore bilakatzen dute enplegua, eta gizartean parte hartzeko modu bat dira gizartean baztertuta dauden edo horrela geratzeko arriskuan dauden pertsonentzat.

Langileak 2017		Euskadi	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Emakumeak	Laneratze prozesukoak	395	81	227	87
	Laneratze prozesutik kanpokoak	248	35	155	58
Gizonak	Laneratze prozesukoak	382	50	283	49
	Laneratze prozesutik kanpokoak	179	12	148	19
Guztira		1.204	178	813	213

Langileen bilakaera



Pertsonak sexuaren arabera



Emakumeak

% 53,4




Gizonak

% 46,6

643
emakumeak

395 laneratze arloko
emakumeak (% 61)

Gizarteratze-prozesuan dauden eta DSBE jasotzen duten pertsonak



598 pertsonak jaso zuten Diru-sarreraren Bermerako Errenta, gizarteratzeko prozesuarekin hasi aurretik (% 77)

Laneratze prozesuan dauden langileen lanaldia (%)



Gizarteratze-arloko pertsonen
% 67k lanaldi osoa du

Lanaldi partzialen **% 68**
emakumeek betetzen dute

Lanpostuen egitura³

Laneratze enpresa	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Laneratze langileak	248	241	489
Zuzendaritza / Gerentzia	11	8	19
Laguntzeko langile teknikoak	10	13	23
Ekoizpeneko langile teknikoak	53	47	100
Beste funtzio batzuk	34	49	83
Guztira	356	358	714

489 laneratze lanpostu


³ Gizarteratze-arloko postua eta pertsona bereizten ditugu: gizarteratzeko postuak edo plazak urteko lanaldi osoa dakar berekin; gizarteratze-arloko pertsona, berriz, lanaldi osoko postu batean aritu daiteke, edo arduraldi partziala izan, bestela.

Erakunde sustatzaileak kontratatutako langileak

Erakunde sustatzailea	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaritza / Gerentzia	17	9	26
Laguntzeko langile teknikoak	14	21	35
Ekoizpeneko langile teknikoak	6	3	9
Beste funtzio batzuk	6	7	13
Guztira	43	40	83

Gizarteratzeari laguntzarako
58 lanpostu tekniko

Lanpostuen bilakaera



Laneratze langileen kontratu motak



Laneratze
kontratuak

% 92



Bestelako
kontratuak

% 8

Egindako kontratuen **% 92**,
44/2007 Legean aurreikusitako
kontratu espezifikopean⁴

Laneratze langileen egoera


Laneratze prozesuan dauden pertsonen buruzko hainbat datu	2014		2015		2016		2017		2018	
	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%
Laneratze prozesuarekin jarraitu zutenak	380	67	440	69	481	72	498	71	528	68
Amaitu aurretik, laneratze prozesua bertan behera utzi zutenak	21	4	15	2	22	3	20	3	31	4
Laneratze kontratua amaitu zutenak	37	6	57	9	40	6	61	9	60	8
Laneratze prozesua amaitu zutenak	132	23	124	19	122	18	123	17	158	20
Guztira	570	100	636	100	665	100	702	100	777	100

⁴ Gizarte-bazterketa egoeran dauden langileak laneratze-enpresetan lan egin dezaten sustatzeko aldi baterako kontratua, laneratze-enpresen erregimena arautzeko buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legeko 15. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laneratzea

	2014		2015		2016		2017		2018	
	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%	Zk	%
Merkatuan, besteren kontura	50	38	60	48	53	43	70	57	78	49
Merkatuan, bere kontura	6	5	5	4	6	5	6	5	1	1
Laneratzte enpresan	12	9	3	2	16	13	9	7	25	16
Langabezian	64	48	56	45	47	39	38	31	54	34
Guztira	132	100	124	100	122	100	123	100	158	100

Laneratzea prozesua bukatzerakoan




Merkatuan, besteren kontura



Merkatuan, bere kontura




Laneratzte enpresan




Langabezian

Laneratzte arloko pertsonen **% 66**
lan merkatura sartu dira

Laneratzearen bilakaera




Enplegu motaren bilakaera




Informazio ekonomikoa

Lan-munduan txertatzeko enpresek jarduera ekonomikoa sortzen dute gure erkidegoan, pertsonekin eta ingurunearekin konpromisoa hartuta, eta ondasunak eta zerbitzuak kontratatzean eta erostean irizpide etikoak, arduratsuak eta solidarioak sustatuta.


Jarduera ekonomikoak (%)




Jarduera sektoreak



Diru-sarrera iturrien bilakaera (milioi €)



Diru-sarrera iturriak



Salmentak



Diru-laguntza publikoak



Diru-laguntza pribatuak



Ustiapeneko bestelako diru-sarrerak

Enpresen batez besteko fakturazioa
554.424,43 €

Mediaren gaineratik
12 enpresa eta
azpitik **28**

Lanpostuko batezbesteko fakturazioa
31.060,19 €

Bezero-zorroatik



Sektore pribatua



Sektore publikoa

22.176.977,20 € fakturatuta

% 83 bezero pribatuak

Diru-laguntza motak



GE-entzako diru-laguntza publikoak



Beste diru-laguntza publiko batzuk



Diru-laguntza pribatuak

Diru-laguntza moten bilakaera⁵ (€)

Diru-laguntzak	2014	2015	2016	2017	2018
Laneratze enplegua	4.069.835,61	4.991.660,45	4.639.908,42	5.485.985,68	5.419.178,24
Ekoizpen teknikariak	419.861,66	368.167,00	420.334,20	633.648,61	786.330,25
Laguntza teknikariak	346.890,70	298.329,05	354.362,55	466.405,75	478.326,72
Inbertsioak	316.553,56	162.715,74	149.208,30	37.768,52	16.546,21
Laguntza teknikoak	0,00	0,00	802,86	0,00	4.778,53
Beste kontzeptu batzuk	49.108,21	29.490,04	50.447,92	52.293,48	176.373,70
GLEi emandako laguntzak, guztira	5.202.249,74	5.850.362,28	5.615.064,25	6.676.102,04	6.881.533,65
Bestelako diru-laguntza publikoak	770.844,96	918.548,70	618.111,47	643.145,19	702.962,96
Diru-laguntza pribatuak	287.892,23	188.026,34	781.949,27	791.434,21	887.109,36
Diru-laguntzak, guztira	6.260.986,93	6.956.937,32	7.015.124,99	8.110.681,44	8.471.605,97

⁵ Laneratze enpresei urtero emandako laguntza espezifikoei hainbat urtetarako izaera dutenez gero, hemen eskaintzen diren datuak 2018 ariketarako enpresek egotzitako zenbatekoak, eta beraz urte desberdinetan emandako laguntzak izan litezke.

Azterketa ekonomikoa (€)

Emaitzen kontua	2014	2015	2016	2017	2018
Ustiapeneko sarrerak	24.883.760,30	28.082.086,51	29.808.770,71	30.479.399,59	31.330.382,88
Lehengaien eta salgaien kontsumoa	-4.701.666,15	-5.637.151,48	-4.953.141,22	-5.479.271,40	-4.616.349,04
Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak	-5.833.459,15	-6.524.343,73	-7.527.781,82	-6.763.006,94	-8.361.537,95
Balio Erantsi Gordina	14.348.635,00	15.920.591,30	17.327.847,67	18.237.121,25	18.352.495,89
Ezohiko emaitzak	10.906,16	30.106,22	57.438,83	-1.869,86	89.420,51
Sortutako Balio Erantsi Gordina	14.359.541,16	15.950.697,52	17.385.286,50	18.235.251,39	18.441.916,40
Bestelako adierazle ekonomikoak	2014	2015	2016	2017	2018
Sortutako Balio Erantsi Gordina	14.359.541,16	15.950.697,52	17.385.286,50	18.235.251,39	18.441.916,40
Pertsonal gastuak	-12.821.347,34	-14.557.091,59	-15.392.750,09	-16.178.844,29	-17.054.893,79
Finantza emaitzak	-147.803,79	-136.764,39	-134.249,48	-174.495,20	-144.620,49
Amortizazioak	-1.433.002,45	-1.202.459,96	-1.176.994,59	-1.059.543,63	-935.085,02
Zerga Aurreko Mozkina (ZAM)	-42.612,42	54.381,58	681.292,34	822.368,27	307.317,10
Amortizazioak	-1.433.002,45	-1.202.459,96	-1.176.994,59	-1.059.543,63€	-935.085,02
Kutxa Fluxua edo Cash Flow	1.390.390,03	1.256.841,54	1.858.286,93	1.881.911,90	1.242.402,12


Diru-sarrerak guztira
31.330.382,88 €

18.441.916,40 € ko BEG

[Itzulkin ekonomikoa]

Gizarteratze eta laneratze enpresek komunitateari egiten dioten oinarritzko ekarpena bazterketa egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzea da. Horretarako, laguntza publiko bereziak jasotzen dituzte. Inbertsio publiko honek, gizarteari itzulkin bat sorrarazten dio, bai ekonomikoki zein justizia eta kohesi sozialari dagokionez.

Zerga bidez administrazio publikoei egindako itzulkina (€)




GLEen ekarpena, laneratze prozesuan dauden pertsonak kontratatzeagatik⁶

	Zenbatekoa laneratze lanpostuko/urte (€)	Laneratze lanpostu kopurua	AAPPei egindako diru-sarrerak (€)
Enpresaren Gizarte Segurantza	4.414,13	489	2.157.715,82
Langilearen Gizarte Segurantza	978,70		478.406,05
PFEZ	831,30		406.353,80
BEZ	1.489,93		728.305,27
Sozietateen g/zerga	51,23		25.043,19
Bestelako zergak	108,02		52.800,30
Guztira	7.873,30		3.848.624,44

Laneratze lanpostu baten itzulkina **7.873,30 €**

Laneratze lanpostuaren benetako kostua (€)




Laneratze lanpostu baten koste errealak **6.204,55 €**


⁶ Kalkulua egiteko, urtean, 15.490,55 € gordin kobratzen dituen laneratze prozesuko langile baten soldata hartu da oinarri.

⁷ Urteko diru-laguntza erabateko zenbatekoa laneratzeko lanpostu erabeteko zenbatearekiko.

DBE jasotzen duen pertsona baten kostua⁸ (€)



Administrazioarentzat kostua (€)



⁸ Kalkulu honetan hurrengo bi faktoreak hartu dira aintzat:

1. Euskadiko "pentsiodun ez diren" pertsonen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren batez besteko kostua, guraso bakarrari eta etxebizitzari dagokion osagarria barne. Iturria: Lanbide (Kabinete Teknikoaren Analisi, Azterketa eta Estatistika Zerbitzua). 2019ko maiatza.
2. Pertsonak jasotzen dituen beste laguntza sozial batzuk, ikerketa ezberdinetatik ateratakoak.

Laneratzeko enpresak eta GJHak:

enplegu inklusiboa sortzeko aliantzak josten, 2030 Agendaren esparruan

2030 Agenda 2015eko irailean Nazio Batuetan onetsitako nazioarteko garapen-agenda berria da. Agenda horren xedea da garapen jasangarriaren aldeko tresna izatea planeta osoan, eta funtsezko oinarri hauek ditu: pobrezia desagerraraztea, ahultasunak eta desberdintasunak murriztea, eta iraunkortasuna sustatzea.

2030 Agendak **17 helburu** ditu, **garapen jasangarriko helburuak (GJH)**, hain zuzen, bai eta 169 xede ere. Estaturik azpiko gobernuek agenda berri hori egiten lagundu dute, eta, orain, funtsezko eginkizuna dute GJHak kokatzeari eta lortzeari dagokionez. 2030 Agendak ezartzen dituen GJHak eta xedeak betetzeko esfortzuak lerrotzea gizarte gisa aurre egin beharreko erronketako bat da, eta Euskadik konpromiso irmoa du horrekin.

Testuinguru horretan, funtsezkoa da aliantza berritzaileak eta *eragile antzitzekoak* sortzea, betiere, 2030 Agenda ezartzeko orduan emaitza positiboak emango dituztenak. Alde horretatik, Euskadiko laneratzeko enpresak, txosten honetan aurkeztutako datuek erakusten dutenaren arabera, aliatu potentziala dira **garapen jasangarriaren erronkari** aurre egiteko orduan, bai sektore publikoarentzat, bai sektore pribatuarentzat, honako GJH hauen bidez, batez ere:



1. Helburua. Pobrezia desagerraraztea

Pobrezia hainbat modutan adierazten da, eta adierazpen modu horietako bat gizarte-bazterketa da. Laneratzeko enpresak pobrezia aurka borrokatzeko tresna berritzailea eta eraginkorra dira, gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak lan-merkatuan gizarteratzen eta laneratzen baitituzte.



4. Helburua. Kalitatezko hezkuntza

Laneratzeko enpresek langileen prestakuntza bermatzen dute; horretarako, lanpostuetan gaitzuntza eman eta enplegarritasuna hobetzen dituzte, eta, hala, kalitatezko hezkuntza- eta prestakuntza-programak ematen eta sustatzen dira.



5. Helburua. Genero-berdintasuna

Gizatea elkarteko enpresok konpromisoa daukagu aukera-berdintasunarekin, eta, horrenbestez, emakumeek laneratzeko enpresetan guztiz parte har dezaten errazten dugu, bai eta sentsibilizazio-, kontzientziazio-, prestakuntza-, laguntza- eta sustapen-ekintza zehatzak ezarri ere, emakumeen berdintasunari eta ahalduntzeari dagokienez.



8. Helburua. Lan duina eta hazkunde ekonomikoa

Kalitatezko lanpostuak sortzen ditugu, eta enplegu inklusiboa sustatzen dugu. Hala, bazterketa-egoera edo arriskuen dauden eta enplegura sartzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen laneratzeko prozesua errazten dugu, jarduera ekonomiko iraunkor eta bideragarriren bidez, betiere, aintzat hartuta tokiko garapenarekiko konpromiso argia dugula.



10. Helburua. Desberdintasunak murriztea

Hazkunde ekonomikoa ez da nahikoa pobrezia murrizteko, baldin eta hazkunde hori inklusiboa ez bada edo garapen iraunkorraren hiru dimentsioak aintzat hartzen ez baditu, alegia, ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari lotutakoak. Gizarte-bazterketan dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak jarduera ekonomiko iraunkorretan eta ingurumenaren alde egiten duten jardueretan laneratuz, laneratzeko enpresek gure lurraldean dauden desberdintasunak murrizten laguntzen dute.



12. Helburua. Ekoizpen eta kontsumo arduratsua

Gizateak eta laneratzeko enpresek ingurumenaren alde egiten duten ekintzen, produktuen eta ekoizpen-metodoen alde egiten dute, eta kontsumo arduratsua sustatzen dute. Ingurumen-iraunkortasun hori barne- eta kanpo-funtzionamenduan dago islatuta; hain zuzen ere, ingurumen-iraunkortasuna indartzen duten proiektuak babesten ditugu, eta konpromisoa daukagu horrelakoekin.



17. Helburua. Itunak, helburuak lortzeko

Sarean eta beste erakunde batzuekin kooperazioan lan egitea **Gizatearen** eta laneratzeko enpresen egiten jakiteko gaitasunaren parte da; izan ere, hori da bidea ekonomia sozialari lotutako esperientzia zehatzen bidez bestelako eredu sozioekonomiko bat sortzeko. Eragile anitzeko aliantzak sustatzen ditugu administrazio publikoekin eta sektore pribatuarekin, lan-merkatu inklusiboak sustatzeko eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonak laneratzeko aukerak sortzeko.



2018an Gizatearekin kidetutako laneratzeko enpresen zerrenda

Izen soziala	Jarduera sektorea	Telefonoa	Lurraldea
ALKAR BIZIZ, S.L.	Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsonen laguntza zerbitzuak	944 155 723	Bizkaia
AMAYADIGITAL, S.L.U.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	945 265 480	Araba
BERAIKI99, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	945 108 130	Araba
BEREZI 99 GARBIKETAK-LOREZAINZA, S.L.	Mantentzea eta zerbitzu osagarriak komunitate, enpresa eta lokal komertzialei	945 108 130	Araba
BERJANTZI, S.COOP.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	944 523 374	Araba
BERZIKLATU, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	946 640 082	Bizkaia
BIDEBARRI ENPLEGU ZENTRUA, S.L.	Elikagaien banaketa	943 716 479	Gipuzkoa
EKOIZAN, S.L.	Elikagai ekologikoen banaketa	944 027 841	Bizkaia
EMAÚS GIPUZKOA, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	902 455 855	Gipuzkoa
EMAÚS COMERCIO JUSTO, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak	943 367 534	Gipuzkoa
EMAÚS DENDAK, S.L.U.	Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS MOVILIDAD SOSTENIBLE, S.L.	Garraio jasagarria	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS NEKAZARITZA, S.L.U.	Elikagaiak eta produktu ekologikoak	944 168 896	Bizkaia
EMAÚS SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena / Etxe-aldaketa garraioa / Arropa, jostailu, altzari eta 2. eskuko gailuen bilketa eta merkaturatzea	944 168 896	Bizkaia
ESKUZ ESKU, SL	Artisautza, zura, metala		Bizkaia
EUSKAL POSTALRED, S.L.	Mezularitza, garraioa eta paketeria	944 128 843	Bizkaia
EUSKARRI, KOOP. E. de Iniciativa Social	Lagun-egite soziala eta laguntza-zerbitzuak menpekoak diren pertsonentzat	944 792 386	Bizkaia
GARBINGURU SERVICIOS MEDIOAMBIENTALES, S.L.U.	Lorezaintza, baratzezaintza, ingurumeneko zerbitzuak eta basoko lanak	945 120 109	Araba
GOILURRA, S.L.	Elikagaien banaketa / Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsonen laguntza zerbitzuak	944 780 541	Bizkaia
HAZLAN IRUN, S.L.	Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsonen laguntza zerbitzuak. Josteta tailerra	943 610 610	Gipuzkoa

Izen soziala	Jarduera sektorea	Telefonoa	Lurraldea
IKATZBIZI, S.L.	Etxez-etxeko laguntza, menpekotasundun pertsoneri laguntza zerbitzuak	945 244 226	Araba
ITURRITEK, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Bizkaia
IZARZA, S.L.	Ostalaritza	944 538 273	Bizkaia
JANTZIPREST, S.L.U.	Garbitze- eta tindatze-lanak	685 753 740	Bizkaia
KEIMA ANIMAZIOA, S.L.U	Aisialdi jarduerak	944 792 255	Bizkaia
KIDE EMAUS, S.L.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	945 250 345	Araba
KOOPERA SERVICIOS AMBIENTALES, S.COOP.I.S.	Hondakinen bilketa, tratamendua eta deuseztapena	944 523 374	Bizkaia
KUPELAN KENTUCKY, S.COOP.	Ostalaritza	946 071 962	Bizkaia
LAIATZEN, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Gipuzkoa
LAIENE JATETXEA, S.L. ⁹	Ostalaritza	944 237 089	Bizkaia
LAPIKO CATERING, S.L.	Ostalaritza	688 679 545	Bizkaia
LIBURKI, S.L.L.	Papertegia, inprimategia eta arte grafikoak	944 462 279	Bizkaia
LOGICART, S.COOP. ¹⁰	Papergintza, kopia-denda, bulegoko materiala	944 760 969	Bizkaia
OARSOTEK, S.L.	Industriarako laguntza-zerbitzuak	943 494 129	Gipuzkoa
PORMU KOOP. ELK. TXIKIA	Mekanika	664 267 778	Bizkaia
SERVICIOS DE HOSTELERÍA PEÑASCAL, S.L.	Ostalaritza	944 700 704	Bizkaia
SOKAIRE SERVICIOS DE LIMPIEZA, S.L.U	Garbiketa	944 167 904	Bizkaia
SUSPERTU, S.L.	Ostalaritza	944 008 060	Bizkaia
TINKO GARBIKETAK, S.L	Garbiketa	945 235 574	Araba
URBEGI INSERCIÓN, S.L.	Industria-zerbitzu osagarriak	946 801 934	Bizkaia
ZABALTEGI JUDIMENDI, S.L.U.	Ostalaritza	945 251 840	Araba
ZURTEK, S.L.	Eraikuntza eta berrikuntzak	944 700 704	Bizkaia

⁹ 2019ko lehen hiruhilekoan deskalifikatuta.

¹⁰ 2018ko azken hiruhilekoan deskalifikatuta.

